

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

15. zenbakia**Data 2006-01-24****1886 orria**

7 UDAL ADMINISTRAZIOA**OLABERRIAKO UDALA****Eskaltetzaren Ordenantza. Behin betiko onespena.**

OLABERRIKO UDALA*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe igaro denez, behin betiko bihurtu da Udalbatzak 2005eko uztailaren 21ean Eskaletasunari buruzko Araudiaren inguruan hartutako hasierako erabakia.

«Eskaltetzari buruzko ordenantza.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau Olaberriko udalerrri osoan aplikatuko da.

2. artikulua. Eskaletza.

a) Debekatuta dago adin txikikoak udalerrriaren barruan eskean ibiltzea, eta adin txikikoen babesaren alorrean indarrean dagoen legeriak xedaturikoa beteko da beti ere.

b) Debekatuta dago dirua edo limosna eskatzea bortxaz edo beldurra sorraraziz hitzez edo egitez. Era berean, debekatuta dago diruaren ordezkari objektuak edo zerbitzuak eskaintzea bortxaz eta beldurra edo eragozpenak sortuz.

Nolanahi ere, Udaltzaingoak ekintza horien berri eman ahal izango dio eskumena duen Auzitegiari.

c) Agintaritzaren Agenteak, gizarte eta udal zerbitzuak eta beste erakunde batzuen zerbitzuak daudela jakinaraziko die beharra duten pertsonen, behar dituzten sorospena eta laguntza eska ditzaten.

d) Gizarte Ongizateko udal zerbitzuak, ageri duten egoera ikusirik, arreta eskainiko die gaua pasatzeko lekurik ez duten pertsonen, bereziki neguan.

3. Artikulua. Arau-haustea.

—Arinak.

2. artikuluko a) eta b) ataletan ezarritakoa haustea.

—Larriak.

2. artikuluko a) eta b) ataletan ezarritakoa haustea, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua sortzen denean.

—Oso larriak.

Arau-hauste oso larria kontsideratuko da arau-hauste larri baten berrerortzea gertatzen bada, urtebeteko epean.

4. artikulua. Zigorrak.

—Arau-hauste arinak 60,10 €tik 90,15 €ra bitarteko isunarekin zigortuko dira.

—Arau-hauste larriak 90,15 €tik 120,20 €ra bitarteko isunarekin zigortuko dira.

—Arau-hauste oso larriak 120,20 €tik 150,25 €ra bitarteko isunarekin zigortuko dira.

Isuna ezartzerakoan kontuan izango dira gaitzusteak, jokabidearen zibismo eza, zabarkeria maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua».

Olaberria, 2006ko urtarrilaren 9a.—Txomin Mendoza Perez, Alkatea.

(39) (476)